Ayuntamiento de Tafalla Tafallako Udala

2026ko TAFALLAKO SALTOKI ETA ZERBITZUETAKO KONTSUMORAKO BONU KANPAINAREN OINARRIAK

ZIOEN AZALPENA

Tafallako Udalak, tokiko merkataritza eta ekonomia jarduera sustatzeko eta dinamizatzeko jardueren barruan, interesgarritzat jotzen du udalerriko hurbileko merkataritza eta zerbitzu establezimenduetan kontsumoa sustatzea.

Helburu horrekin, "Tafallako denda eta zerbitzuetan kontsumorako bonuak 2026" kanpaina jarri da abian. Kanpaina horren bidez, kontsumitzaileek deskontuak izanen dituzte kanpainari atxikitako establezimenduetan egindako erosketetan, eta, aldi berean, tokiko kontsumoa sustatzen eta udalerriko merkataritza eta zerbitzu jarduera dinamizatzen lagunduko dute.

Kanpainaren helburuen artean daude, besteak beste, tokiko establezimenduetan kontsumoa sustatzea, herritarrak merkataritzaren eta hurbileko zerbitzuen garrantziaz sentsibilizatzea eta udalerriko ekonomia dinamizatzen laguntzea.

1. Oinarria. KANPAINAREN XEDEA

Kanpaina honen helburua da Tafallako merkataritza eta hurbileko zerbitzuak suspertzea, dinamizatzea eta sustatzea, eta merkataritza horrek gure herrian duen garrantziaz sentsibilizatzea.

2. Oinarria. ZUZKIDURA EKONOMIKOA

Kanpainak 10.000 euroko zuzkidura ekonomikoa izanen du gehienez, Tafallako Udalaren 2026ko Aurrekontuko 0 4300 2269900 "MERKATARITZA/TURISMOA SUSTATZEKO HAINBAT GASTU" aurrekontu aplikazioaren kargura.
Zuzkidura ekonomikoa kontsumitzaileei aplikatutako deskontuak finantzatzeko erabiliko da, kanpainako bonuen bidez.
Benetan trukatutako bonuen zenbateko osoak ezin izanen du inola ere gainditu aurreikusitako gehieneko zuzkidura ekonomikoa.

3. Oinarria. KANPAINAREKIN BAT EGIN DEZAKETEN ESTABLEZIMENDUAK

BASES DE LA CAMPAÑA DE BONOS AL CONSUMO EN COMERCIOS Y SERVICIOS DE TAFALLA 2026

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El Ayuntamiento de Tafalla, dentro de sus actuaciones de promoción y dinamización de la actividad comercial y económica local, considera de interés fomentar el consumo en los establecimientos comerciales y de servicios de proximidad del municipio.
Con esta finalidad se pone en marcha la campaña "Bonos al consumo en comercios y servicios de Tafalla 2026", mediante la cual las personas consumidoras podrán beneficiarse de descuentos en las compras realizadas en los establecimientos adheridos a la campaña, contribuyendo al mismo tiempo a incentivar el consumo local y a dinamizar la actividad comercial y de servicios del municipio.
La campaña pretende, entre otros objetivos, favorecer el consumo en los establecimientos locales, sensibilizar a la ciudadanía sobre la importancia del comercio y los servicios de proximidad y contribuir a la dinamización económica del municipio.

Base 1ª.- OBJETO DE LA CAMPAÑA

La presente campaña tiene por objeto la reactivación, dinamización y fomento del comercio y los servicios de proximidad de Tafalla y sensibilizar sobre la importancia de este comercio en nuestra localidad.

Base 2ª DOTACIÓN ECONÓMICA

La campaña contará con una dotación económica máxima de 10.000 euros, con cargo a la aplicación presupuestaria 0 4300 2269900 "GASTOS DIVERSOS PROMOCIÓN COMERCIO/TURISMO" del Presupuesto del Ayuntamiento de Tafalla para el ejercicio 2026.
La dotación económica se destinará a financiar los descuentos aplicados a las personas consumidoras mediante los bonos de la campaña.
En ningún caso el importe total de los bonos efectivamente canjeados podrá superar la dotación económica máxima prevista.

Base 3ªESTABLECIMIENTOS QUE PUEDEN ADHERIRSE A LA CAMPAÑA

Kanpainari atxiki ahal izanen zaizkio Tafallako udalerrian dagoen jendearentzat zabalik dagoen lokal batean diharduten merkataritza eta zerbitzu establezimenduen titular diren pertsona fisiko edo juridikoak, baldintza hauek betetzen badituzte:		Podrán adherirse a la campaña las personas físicas o jurídicas titulares de establecimientos comerciales y de servicios que desarrollen su actividad en un local abierto al público situado en el término municipal de Tafalla y que cumplan los siguientes requisitos:
a) Lan-araubide autonomoko edo enpresako profesionala izatea; bi kasuetan, 10 langile baino gutxiago izatea plantillan, eta urteko negozio-bolumena edo balantzea ez izatea 2 milioi eurotik gorakoa.		a) Ser profesional en régimen laboral autónomo o empresa, en ambos casos con menos de 10 personas en plantilla y volumen de negocio anual o balance no superior a 2 millones de euros.
b) Egoitza fiskala eta merkataritza lokala Tafallako udalerrian egotea.		b) Que el domicilio fiscal y el local comercial se encuentren en el municipio de Tafalla.
c) Tafallan jendearentzako lokal irekia duten jarduerak, merkataritza arloko jarduera ekonomikoen zergan alta emanda dauden ondasun eta zerbitzuak saltzeko**, jarduera hauek kanpoan utzita: apustu eta loteria aretoak, tabakoaren salmenta, erregaiak, bankuak eta finantza erakundeak, aholkularitzak (energetikoak, lanekoak, kontabilitatekoak, fiskalak, administratiboak, mugikorretakoak, etab.) eta merkataritza azalera handiak.** **Kanpoan geratzen dira Administrazio Publikoak, enpresa publikoak eta beste erakunde publiko batzuk, bai eta Elkarteak, Fundazioak eta, oro har, irabazi-asmorik gabeko erakundeak ere.** **Deialdi honetatik kanpo geratuko lirateke, halaber, ostalaritzaren sektorea, Nafarroako Gobernuaren beste laguntza-lerro espezifiko bat dagoelako, bai eta kalez kaleko salmenta ere.**		c) Actividades con local abierto al público en Tafalla para la venta de bienes y servicios que figuren de alta en el impuesto de actividades económicas en el ámbito comercial, **quedando excluidas las actividades de: salones de apuestas y loterías, venta de tabaco, combustibles, bancos y entidades financieras, asesorías (energéticas, laborales, contables, fiscales, administrativas, de móviles, etc.) y grandes superficies comerciales.** **Quedan excluidas las Administraciones Públicas, empresas públicas y otros entes públicos, así como Asociaciones, fundaciones y, en general, Entidades sin ánimo de lucro.** **También quedarían excluidas el sector de la hostelería de esta convocatoria por existir otra línea de ayuda específica del Gobierno de Navarra y el de la venta ambulante.**
d) TAFALLAko Udalarekiko, Nafarroako Ogasun Publikoarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak egunean izatea.		d) Estar al corriente en el pago de sus obligaciones fiscales y tributarias con el Ayuntamiento de TAFALLA, con la Hacienda Pública de Navarra y con la Seguridad Social.
4. Oinarria. MERKATARITZA/ZERBITZUEI LAGUNTZEKO BONUEN KANPAINAREN FUNTZIONAMENDUA.		**Base 4ª FUNCIONAMIENTO DE LA CAMPAÑA DE BONOS EN APOYO AL COMERCIO /SERVICIOS.**
4.1. Atxikitzea Kanpaina honetan parte hartu nahi duten establezimenduek eskaera aurkeztu beharko dute, deialdi honen 5. oinarrian ezartzen den bezala. Dokumentazioa aztertu ondoren, Udalak jakinaraziko du establezimendu hori kanpainan onartu edo ukatu den. Udalak behar bezala iragarriko du kanpainara atxikitako saltokien izena,		**4.1. Adhesión** Los establecimientos interesados en participar en esta campaña deberán presentar su solicitud tal y como se establece en la base 5º de esta convocatoria. Una vez analizada la documentación se comunicará por parte del Ayuntamiento la aceptación o denegación del citado establecimiento en la campaña. El Ayuntamiento publicitará

herritarrak jakinaren gainean egon daitezen. Era berean, establezimendu bakoitzak bere partaidetza identifikatzeko bereizgarri bat izanen du.		debidamente el nombre de los comercios adheridos a la campaña para el conocimiento de la ciudadanía, a su vez, cada establecimiento dispondrá de un distintivo que identifique su participación.
4.2. Bonuen ezaugarriak Bonuek 5 euroko balioa izanen dute, eta kanpainari atxikitako establezimenduetan erabili ahal izanen dira 15 euroko edo gehiagoko erosketetan. Bi bonu erabili ahal izanen dira erosketa berean, baina ez gehiago.		**4.2. Características de los bonos** Los bonos tendrán un valor de **5 euros** y se podrán utilizar en los establecimientos adheridos a la campaña en compras de importe igual o superior a 15 euros. Se podrán utilizar dos bonos en una misma compra, pero no más.
Pertsona bakoitzak gehienez 2 bonu erabili ahal izanen ditu, pertsonalak eta besterenezinak, eta NANari lotuta egonen dira. Bonuak erabiltzeko, nahikoa izanen da kanpainari atxikitako establezimenduan NANa aurkeztea.		Cada persona podrá utilizar un máximo de **2 bonos**, serán personales e intransferibles e irán asociados al DNI. Para la utilización de los bonos bastará con la presentación del DNI en el establecimiento adherido a la campaña.
Bonuak Tafallako establezimenduetan aurrez aurre egindako erosketetan bakarrik erabili ahal izanen dira.		Los bonos únicamente podrán utilizarse en compras realizadas presencialmente en los establecimientos adheridos situados en Tafalla.
Bonuak **2026ko azaroaren 23tik 2026ko abenduaren 2ra bitartean** kontsumitu beharko dira, bi egunak barne, edo kanpainarako zuzkidura ekonomikoa agortu arte.		Los bonos deberán consumirse entre el **23 de noviembre de 2026 y el 2 de diciembre de 2026**, ambos días inclusive, o hasta el agotamiento de la dotación económica destinada a la campaña.
Atxikitako establezimendu bakoitzean gehienez 1.000 euroko bonuak trukatu ahal izanen dira. Zenbateko horretara iritsitakoan, establezimenduak kanpainako bonu berriak izapidetu ahal izateari utziko dio.		El importe máximo de bonos que podrá ser canjeado en cada establecimiento adherido será de 1.000 euros. Una vez alcanzado dicho importe, el establecimiento dejará de poder tramitar nuevos bonos de la campaña.
Kontsumitzaile batek bonu bat erabiltzea eskatzen duenean, kanpainarako gaitutako aplikazioaren bidez egiaztatuko du bonua eskuragarri dagoela eta pertsonak ez duela gainditu baimendutako gehieneko bonu-kopurua.		Cuando una persona consumidora solicite utilizar un bono, el establecimiento comprobará mediante la aplicación habilitada para la campaña que el bono se encuentra disponible y que la persona no ha superado el número máximo de bonos permitido.
Establezimenduak erosketa egiteko unean baliozkotuko du bonua aplikazioan, eta dagokion deskontua aplikatuko dio erosketaren zenbatekoari.		El establecimiento validará el bono en la aplicación en el momento de realizar la compra y aplicará al importe de la misma el descuento correspondiente.
Bonua baliozkotu ondoren, erabili gisa erregistratuko da, eta ezin izanen da berriro erabili.		Una vez validado el bono, este quedará registrado como utilizado y no podrá volver a utilizarse.
Establezimenduak eragiketaren egiaztagiria gorde beharko du, kontsumitzailea identifikatzen duen NAN zenbakiarekin batera, oinarri hauetan ezarritako epean, eta Udalaren esku jarri beharko du egiaztapen-jardueretarako eskatzen zaionean.		El establecimiento deberá conservar el justificante de la operación junto al número de DNI que identifique a la persona consumidora, durante el plazo establecido en las presentes bases y ponerlo a disposición del Ayuntamiento cuando sea requerido para las actuaciones de comprobación.

2026ko abenduaren 9tik 11ra bitartean, kanpainari atxikitako saltokiek erantzukizunpeko adierazpen bat bidali beharko diote Udalari, beren establezimenduan trukatu beharreko bonuak oinarri hauetan ezarritakoaren arabera egin direla adierazteko. Aurkezpena egiaztatu ondoren, Udalak kanpaina indarrean dagoen bitartean aplikazioan behar bezala erabili eta erregistratutako bonuei dagokien zenbatekoa ordainduko dio atxikitako establezimendu bakoitzari, ezarritako gehieneko mugaraino. Ez dira ordainduko aplikazioan behar bezala erregistratuta ez dauden bonuak, kanpainaren baldintzak bete gabe erabili direnak edo erabili direla egiaztatu ezin direnak..		Entre el 9 y el 11 de diciembre de 2026 los comercios adheridos a la campaña deberán enviar al Ayuntamiento una declaración responsable de que los bonos a canjear en su establecimiento se han realizado conforme lo estipulado en estas bases. Una vez comprobada la presentación, el Ayuntamiento abonará a cada establecimiento adherido el importe correspondiente a los bonos correctamente utilizados y registrados en la aplicación durante el periodo de vigencia de la campaña, hasta el límite máximo establecido. No serán objeto de abono los bonos que no figuren correctamente registrados en la aplicación, que hayan sido utilizados incumpliendo las condiciones de la campaña o cuya utilización no pueda ser acreditada.
5. Oinarria. ESKABIDEAK AURKEZTU, EPEA ETA EBAZPENA.		**Base 5ª PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES, PLAZO Y RESOLUCIÓN.**
5.1. Kanpainarekin bat egin nahi duten establezimenduek epea izanen dute eskaera TAFALLAko Udaleko Erregistro Orokorrean aurkezteko, **2026ko azaroaren 13ko 14:00ak arte**.		5.1. Los establecimientos que quieran adherirse a la campaña tendrán un plazo para presentar la solicitud en el Registro General del Ayuntamiento de TAFALLA hasta las **14 horas del 13 de noviembre de 2026**.
5.2. Aurkeztu beharreko dokumentazioari dagokionez akatsak edo omisioak dituzten eskabideek 5 eguneko epea izanen dute, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, zuzentzeko, eta ohartaraziko zaie ez aurkeztea edo ez zuzentzea eskaeran atzera egindakotzat hartuko dela, eta artxibatu eginen dela beste izapiderik egin gabe.		5.2. Aquellas solicitudes que presenten defectos u omisiones en cuanto a la documentación que se deba aportar, dispondrán de un plazo de 5 días, contados a partir del día siguiente a la notificación, para su subsanación, con la advertencia de que la no presentación o subsanación se entenderá como desistimiento de la petición, procediendo a su archivo sin más trámite.
5.3. Aurkeztu beharreko agiriak: a) TAFALLAko Udalari zuzendutako eskaera orria. (1. eranskina) b) Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria. c) TAFALLAko Udalak eskatzaileari edozein dokumentu argigarri edo egiaztapen eskatu ahal izanen dio espedientea ebazteko.		5.3. Documentación a presentar: a) Instancia de solicitud dirigida al Ayuntamiento de TAFALLA. (Anexo 1) b) Certificado de estar al corriente de pago de las obligaciones tributarias con la Hacienda Foral y con la Seguridad Social. c) El Ayuntamiento de TAFALLA podrá requerir a la persona solicitante cualquier documento aclaratorio o de comprobación para la resolución del expediente.
5.4. Gehienez ere 5 egun balioduneko epean, Alkatetzak establezimendu parte-hartzaileei onarpena ebatzi eta jakinaraziko die.		5.4. En el plazo máximo de 5 días hábiles, la Alcaldía resolverá y notificará la admisión a los establecimientos participantes.
5.5. 2026ko abenduaren 9tik 11ra bitartean, kanpainari atxikitako establezimenduek erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko dute, eta, hala badagokio, eskatzen zaizkien egiaztagiriak edo		5.5. Entre el 9 y 11 de diciembre de 2026, los establecimientos adheridos a la campaña presentarán la declaración responsable y en su caso, los justificantes o copia de los tickets que sean

tiketen kopiak. Aplikazio informatikoan erregistratutako informaziotik eta aurkeztutako dokumentaziotik abiatuta, Alkatetzak establezimendu bakoitzari likidatu beharreko zenbatekoak ebatziko ditu eta dagokion ordainketa eginen du. Kanpainak parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek erabat onartzea eta bonuak erabiltzeko eta baliozkotzeko ezarritako baldintzak betetzeko konpromisoa hartzea. **6. Oinarria. ERREKURTSOEN ARAUBIDEA** Deialdi honen, bere oinarrien eta horiek betearazteko hartzen diren ebazpen administratiboen aurka, honako errekurtso hauek aurkez daitezke: - Berraztertzeko errekurtsoa, administrazio-egintzaren egilea den udal-organo beraren aurrean, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, hala badagokio, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. - Gora jotzeko errekurtsoa Nafarroako Administrazio Auzitegian, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. - Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Iruñeko Auzialdiko Auzitegiko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, txandaka dagokion epaitegian, bi hilabeteko epean. Epe hori zenbatzen hasiko da errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.		requeridos. A partir de la información registrada en la aplicación informática y de la documentación aportada la Alcaldía resolverá las cantidades a liquidar a cada establecimiento y procederá a realizar el correspondiente abono. La participación en la campaña implica la aceptación íntegra de las presentes bases y el compromiso del establecimiento de cumplir las condiciones establecidas para la utilización y validación de los bonos. **Base 6ª RÉGIMEN DE RECURSOS** Contra la presente convocatoria, sus bases y las resoluciones administrativas que se adopten en ejecución de las mismas, podrán interponerse, potestativamente, los siguientes recursos: - Recurso de reposición ante el mismo órgano municipal autor del acto administrativo en el plazo de un mes a partir del día siguiente de la notificación o, en su caso, publicación del acto que se recurra. - Recurso de alzada ante el Tribunal Administrativo de Navarra en el plazo de un mes siguiente a la notificación o publicación del acto que se recurra. - Recurso Contencioso-Administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal de Instancia que por turno corresponda de la ciudad de Pamplona en el plazo de dos meses. Este plazo se computará a partir del día siguiente a la notificación o publicación del acto que se recurra.

.

Ayuntamiento de Tafalla Tafallako Udala

1. ANEXO / 1. ERANSKINA
SOLICITUD DE PARTICIPACIÓN DE LA CAMPAÑA DE BONOS AL CONSUMO
KONTSUMO BONOEN KANPAINAN PARTE HARTZEKO ESKAERA

DATOS DEL NEGOCIO SOCILICITANTE / SALTOKI ESKATZAILEAREN DATUAK	
RAZÓN SOCIAL (TITULAR IAE) IZEN-ABIZENAK EDO IZEN SOZIALA (EJZ-TITULARRA)	
NOMBRE COMERCIAL IZEN KOMERTZIALA	
DNI, NIF, NIE NAN, IZF, AIZ	DOMICILIO HELBIDEA
TELÉFONO DE CONTACTO TELEFONOA	
MÓVIL MUGIKORRA	CORREO ELECTRÓNICO POSTA ELEKTRONIKOA
DIRECCIÓN DEL LOCAL ABIERTO AL PÚBLICO: JENDEARENTZAT IREKITAKO LOKALAREN HELBIDEA:	
NOMBRE Y APELLIDOS IZEN-ABIZENAK	
MÓVIL MUGIKORRA	CORREO ELECTRÓNICO POSTA ELEKTRONIKOA

*EL CORREO ELECTRÓNICO DEBE DE SER EL DE LA TIENDA O PERSONA PROPIETARIA, NO ASESORÍAS O PERSONA QUE NO ESTARÁN IMPLICADAS EN LA CAMPAÑA DE MANERA DIRECTA.

*POSTA ELEKTRONIKOA DENDARENA EDO JABEARENA IZAN BEHAR DA, EZ AHOLKULARITZENA EDO KANPAINAN ZUZENEAN INPLIKATUTA EGONGO EZ DEN PERTSONARENA

DATOS BANCARIOS / BANKU- KONTUAK
TITULAR DE LA CUENTA (Debe coincidir con el nombre y apellidos o razón social del solicitante del apartado anterior) KONTUAREN TITULARRA (Aurreko ataleko eskatzailearen izen-abizen edo izen sozialarekin bat etorri behar du) DENOMINACIÓN DE LA ENTIDAD BANCARIA BANKU-ENTITATEAREN IZENA
CUENTA BANCARIA – IBAN (**En España el IBAN consta de 24 posiciones comenzando siempre por ES**) BANKU-KONTUA – IBAN (**IBAN zenbakiak, Espainian, 24 posizio ditu: ES jarrita, beti, hasieran**)

DOCUMENTACIÓN QUE DEBE ACOMPAÑAR A LA SOLICITUD ESKAERAREKIN BATERA ERAMAN BEHAR DIREN AGIRIAK		
DNI de las personas físicas o de las representantes legales de la actividad constituida y CIF de la empresa.		Eratutako jardueraren pertsona fisikoen edo legezko ordezkarien NANa eta enpresaren IFK.
Certificados estar corriente de obligaciones fiscales (Hacienda Foral) y de Seguridad Social.		Betebehar fiskalak egunean dituela egiaztatzen dituzten frogagiriak (Foru Ogasuna) eta Gizarte Segurantza.

En TAFALLA / TAFALLAN_____

Fdo. / Sint.:_____

DNI / NAN:_____

FIRMA DE LA PERSONA SOLICITANTE / ESKATZAILEAREN SINADURA